



## Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2017/06/06 Udaletxean 18.00-19:30



### Gaurkoan bildu gara,

- Jose Ignacio Mendizabal (Herri plataforma)
- Edurne Huesa (Landarlan)
- Joseba Aranburu (EAJ, Alkatearen izenean)
- Juan Ignacio Alonso (Ordizia Orain)
- Manolo Iturrioz (EAJ)
- Rosa Aurkia (Ingurumen teknikaria)

Bere ez egotea justifikatu du: Patxi Arrospide (Herritarra)  
Carlos Gonzalez (Irabazi)  
Miren Nekane Apaolaza (Herritarra)

### Gai ordena

Bileran ondoko gaiak landu ziren:

1. Aurreko aktaren onarpena
2. Edukiontzien ordainketaren ebazpena
3. Errauskailua: eragin ekonomikoa
4. Ordenantza (1. artikulutik 10.era)
5. Aste berdea

### Aurreko aktaren onarpena

TEKNIKARIA: Irabaziko Carlosek edukiontzien ordainketaren inguruko hainbat aportazio pasa dizkit aktan jasotzeko eta akta moldatu egingo da.

ORDIZIA ORAIN: Ez nago ados Irabazik maiatzeko bileran esan zuenarekin eta errekifikatzea eskatzen diot.

LANDARLAN: Aktan azaltzen da bilera urgentea ekainaren 6an izan zela baina martxoaren 3an izan zen.

EAJ: Bere aportazioak aurreko aktari:

- Landarlan ez dago errauskailua egitearen alde baina nik esaten dut errauskailua egiteari ezezkoa esatea zentzugabekeria bat dela.
- Landarlanek eskaera batzuk egin zituen. Nik ere ondorengo hau eskatzen dut; gaur egungo egoera eta errauskailua egin ondoren izango dugun egoeraren arteko konparaketa eskatzen dut.
- Hondakin mahaiaren eraketa dokumentua: errauskailuaren debatea dokumentuan ez bada azaltzen, eraketa dokumentua aldatu egin beharko litzateke eta orduan gaia gai ordenan sartzea ondo iruditzen zait.



## Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2017/06/06 Udaletxean 18.00-19:30



- Egoera ekonomikoa: Udaleko ordainketetan gaikako bilketa tasa kontutan edukitzea ere nik nahitaezkoa ikusten dut. Prentsan Diputatuak horrela izango zela esan zuen.
- Errauskailuaren eragin ekonomikoa jakiteko galdetu egin beharko genuke.

LANDARLAN: Esandakoarekin orokorrean ados gaude baina konparaketa izan behar du Ordiziako Udalari dagokiona gaikako bilketa tasaren arabera.

EAJ: Zenbat kostatzen zaio gaur egun Udalari eta zenbat kostatuko zaion errauskailua egin ondoren.

LANDARLAN: Errauskailua egitea ere Udalak ordaindu behar dute eta zein eragin izango du. Nola egingo da ordainketaren banaketa. Diputatuak esan du saritu egingo dela. Baina kazetari batek kostu batzuk argitaratu ditu eta horregatik egin zaio eskaera Sasietari.

EAJ: Errauskailuaren kostua bat da eta hondakinen tratamendua beste bat da. Gaikako tasaren aldeko bonifikazioak ere egongo dira. Udalerrien tamaina ere kontutan hartu beharko da. Orain arte egin den bezala koefiziente batzuk jarri beharko dira.

LANDARLAN: Hori ez dute garbi esan eta hori da eskatu duguna.

EAJ: Neurri zuzentzaileak zein diren ikusi beharko dugu eta orduan ikusi justuak diren.

TEKNIKARIA: Mahaiko kideek errauskailuaren inguruko aportazio ezberdinak egin dituzte baina eragin ekonomikoa bakarrik aztertu behar dugunez ez ditut aktan jaso.

Eragin ekonomikoa bakarrik aztertuko genuela denak adostu genuen.

### **Edukiontzien ordainketa**

Ordiziako hondakin mahaitik, Sasietari ebazpen bat luzatu edukiontzien ordainketarekin ados ez gaudela esateko.

IRABAZI: Carlos-ek ebazpenerako hainbat puntu zehaztu ditu:

- 1.- Ordiziak erosi dituen edukiontzien zenbateko osoa bueltatzeko eskaera egiten dugu.
- 2.- Bidegabekeria bat da besteek ez dituztela edukiontziak ordaindu.
- 3.- Ezin dira jolasaren arauak aldatu, erabakiak hartu ondoren, eta aurretik inoiz ez denean adostu Udalerriak ordaintzen zutela egiten zuen aldaketa.
- 4.- Ordiziak aldaketa herritarren babesarekin egin zuen, gutizia politiko bat ez zen izan. Ondo egiten duenari zigorra jartzen zaio eta hori ez da posible.



## Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2017/06/06 Udaletxean 18.00-19:30



5.- Mankomunitate bat bagara, denetarako gara, ez da bidezkoa Sasieta bada edukiontzien jabea batzuk ordaintzea eta beste batzuk ez.

Denak ados daude puntu guztiekin.

ORDIZIA ORAIN: Ordainketa hau nori dagokion jakiteko Sasieta Mankomunitatearekin sinatu zen kontratua eduki beharko genuke.

EAJ: Edukiontzien ordainketaren inguruko gaia Sasieta ordenantzan egon beharko luke baina hau ez dago bertan zehaztuta.

ORDIZIA ORAIN: Kontratua edukitzea beharrezkoa ikusten dugu.

TEKNIKARIA: Udaletxean galdetuko dut nor eduki dezakeen kontratu hau. Ebazpen eredu bat prestatuko dugu.

LANDARLAN: Ebazpenean ondorengo hau jasotzea ere nahi dugu: Sasieta Mankomunitateko bileran adierazi Ordiziako hondakin mahaiak errauskailua egiteak eta honen ondoren hondakinen tratamenduak zein eragin izango duen Ordiziako Udalean eskatu duela.

EAJ: Gaur egungo kostuarekin ere konparatzea eskatzen dut.

TEKNIKARIA: Ebazpen berdinean bidaliko dugu dena. Edukiontzien ordainketaren inguruko ebazpena eta ondoren, hondakin mahaiak eskatu duela Sasieta Mankomunitateko bileran esatea errauskailua egitea duen kostua eta hondakinen tratamenduak zein eragin izango duen eta gaur egun zenbat kostatzen den hondakinen tratamendua.

### Errausgailuaren datuak

TEKNIKARIA: Iñaki Erauskinek GHK-ko informazioa pasa du. Berak hasieran ez duela ezer esan zuen, Sasieta hiru ordezkariak (EAJ, PSE eta BILDU) informazioa izango dutela esan zidan. Nik GHKri egin nion kontsulta. Baina Segurako Udalak ere eskaera berdina egin du eta orduan, Iñakik egin du kontsulta GHKra eta Beasaingo GHKko ordezkariarekin harremanetan jarri da eta informazioa bidali digu.

Bertan errauskailua egiteko hartutako erabakien informeak daude.

EAJ: GHKri berriro eskatu eta esan ez gaudela ados bidali duten informazioarekin. Ez dela guk eskatu genuena. Eta gaur egungo gastuak ere eskatu behar dira.

LANDARLAN: Gaur egungo gastuak badakizkigu, Sasieta ordaintzen duguna da. Hori badakigu 174 € inguru ordaintzen da errefusa tona.



## Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2017/06/06 Udaletxean 18.00-19:30



EAJ: GHK-k Sasietari kobratzen dio eta Sasietak Udalei. GHKko gastuei Sasietako gastuak gehitu behar zaizkio. Azken hau jakin behar dugu.

TEKNIKARIA: GHK-k Sasietari 173,12 € (+BEZ) kobratzen dio errefusa tonagatik.

EAJ: Orduan Sasietak zenbat kobratzen du.

TEKNIKARIA: Sasietak ere berdina kobratzen du.

EAJ: Baina Sasietak ez du gehiago kobratzen benefizioengatik, amortizazioengatik, soldatengatik,.....

TEKNIKARIA: Errefusaren kudeaketa 173,12 € dira.

EAJ: Jakin behar dugu errauskailua egin ondoren zenbat kostatzen den errefusaren tratamendua.

LANDARLAN: Errauskailua egitea ere zenbat kostatuko zaigun jakin behar da. Udalerrri guztiek ez dute berdina ordaindu behar. Tasaren arabera izan beharko luke.

TEKNIKARIA: Zenbat kostatuko dan errefusa tonelada errauskailua egin ondoren. Udal bakoitzari zenbat kostatuko zaion errauskailuren eraikuntza egitea. Kostu guzti hauentzako gaikako bilketa tasa kontutan hartuko al dan.

### Hainbat gai

#### IBARBIA KALEA

Bizilagunekin bilera egin da eta dena azaldu zaie. Terrenoa pribatua da. Udala abokatuarekin kontaktuan jarrita dago eta pentsatzen da ez dela inongo arazorik egongo. Laster obrak egiten hasiko dira eta Sasietak edukiontzia jarriko ditu.

#### KALEKO HEZITZAILEAK

TEKNIKARIA: Zerbitzu delegarizatik bideratuta dago, hondakin mahaiaren eskaeratik zetorren.

ORDIZIA ORAIN: Perfil berezi bat behar da hezitzailea izateko. Beti eserita daude eta lurrean uzten diren poltsak edukiontzi barrura sartu beharko lituzkete.

TEKNIKARIA: Maiatzak 8an hasi ziren. Iturtxo, Juan Amezketa eta San Inazio kalean egon dira. Urdaneta 68n (Malkaskon) ere arazoa dago eta bertan ere egon dira.



## Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2017/06/06 Udaletxean 18.00-19:30



EAJ: Mahai honen eskaera denez, jakin beharra dugu arazoa konpondu al den eta ze eragina izan duen.

TEKNIKARIA: Zerbitzutako delegaritzak jarraipena egiten du astero.

HERRI EKIMENA: Jarraipen hauek ezagutzea garrantzitsua da. Iturtxon beraiek daudenen ondo egoten da baina joaten direnean lurlean uzten dituzte.

TEKNIKARIA: Zerbitzutako delegaritzari informazioa eskatu zaio.

HERRI EKIMENA: Baina ze neurrik hartzen dituzten jakin behar dugu.

TEKNIKARIA: Elkarte gastronomiko batzuetan ez dute ondo egiten eta deneta eskutitz bat bidaliko da esanez gaikako bilketa ondo egin behar dela. Hurrengo pausoa isunak jartzea izango dela esango zaie.

Taberna batzuetan eta komertzio batzuetan arazoak daude. Bisitak egin dira eta isunak jartzeko proposamena egin da zerbitzutako delegaritzatik.

### Ordenantza

Sasietako ordenantza eta ordenantza ereduak elkarrekin landu behar dira.

ORDIZIA ORAIN: Beste Udaletako ordenantzak ereduarekin landu dira. Adib.: Errenteria, Tolosa,....

LANDARLAN: Nik lehen 10 artikulua landu ditut eta ez da hain konplikatu.

EAJ: Ordenantza lantzen dugu baina ez du definitiboa izan behar, moldagarria izan behar du.

TEKNIKARIA: Denak ez duzue landu nire proposamena hurrengo bilerarako aurretik landuta ekartzea da.

ORDIZIA ORAIN: Hondakin solidoak bakarrik izango dira eta likido eta gaseosoekin zer egiten dugu.

EAJ: Sasietak hondakin solidoen ordenantza du. Beste ordenantza berezirik badago begiratu dezakegu.

ORDIZIA ORAIN: Errenteriakoa egokiena da.

EAJ: Errenteriakoa aztertzen dugu eta zerbait berezia badago ikusten dugu.

TEKNIKARIA: Hurrengo bilerarako lehenengo 15 artikulua aurretik landuta ekarriko dira eta gai ordenek lehenengo puntu bezala joango da. Errenteriako ordenantza pasako dizuet (ordenantza ereduaren gainean landuta dago).



## Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2017/06/06 Udaletxean 18.00-19:30



Denak lantzen duzue Sasieta eta Errenteriako ordenantza eta nik eredu ere begiratzen dut badaezpada zerbait aldatzen den.

Gai ordeneko bigarren puntua edukiontzien ordainketa eta hirugarrena beste gaiak zein egoeratan dauden.

### Aste berdea

Ekainak 3tik 11ra erosketa poltsa eta tupperrakin joateagatik zozketa batetan parte hartzeko aukera izango da. Kanpaina honetan Ordizian elkartean dauden elikadura dendak (13 denda) parte hartuko dute. Sariak 2 saski produktu ekologikoekin eta 2 erosketa bale dira. Saskiak Ordiziako Udalak eta baleak Ordizian elkarteak jarriko dituzte. Ordizian elkarteak erosketa baleak jarriko dituzenez elkarteko dendak bakarrik parte hartuko dutela erabaki dute.

Ekainak 8: "Kultura ez da hondakin bat". Garbigunetik hartutako liburu, diskak, ... saldu egiten ditu. Berrerabilpena bultzatuz.

Ekainak 10: Kimikarin. Hondakinen murrizpena, berrerabilpena eta birziklapena landuko dute.

### Hiri hondakinak ibaian

Beasain eta Lazkaok ez dute parte hartu behar Oria ibaiaren garbiketan.

Goierri guztia garbitzea 17.000 € ziren, 22 egunetan 11 langileekin.

Goiekiko juntan Ordiziatik Bildu, Ordizia Orain eta EAJko ordezkariak daude. Junta honetan garbiketa hau bultzatuko dute bilerara aurkeztu ziren Udalak. Helburua, Goiekiko aurrekontuan sartzea eta urteroko lan bat bezala zehaztea.

### Hurrengo bilera

Uztaileko bilera: uztailearen 4an arratsaldeko 18:00etan.